



BARREN
TOKIKOM



Zer diozu, ama?

LARROSA, MAITASUNEZ GOZA

*Erosi lore sorta
eta etxera
eramango dizugu!*

Otsailaren 14a, San Balentin.
Zenbat poz, zenbat maitemin.
Loreen usaina zure maitearen bihotzera iritsi dadin
opari polit bat egin.

Larrosa, maiteminduen poza.
Nola ez zure bikotearekin goza?
Loreak eman eta lapurtu bere bihotza.

Larrosa, lore dotorea.
Aukeratu kolorea,
bakoitzak esentzia berezia du gordea.

Gorria: Maitasun itsua du bere jatorria
Gehienen gustukoa da larrosa honen orria,
bestearen maitemin eta zirrarak etorria.

Horia: Poz eta estimuaren gloria,
larrosa hosto bakoitzean eroria.

Arrosa: Emakumeen barne gogoa kanporatzeko aproposa.

Zuria: Samurtasunaren irudia.
Ezkontzaren bidean bien arteko zubia.

Larrosa bat, bi edo sorta.
Kopurua nori zaio inporta?

Bakarra: Bikote hasiberriarentzat indarra.
Bi: Elkar lotuz gero bien arteko maitasun eta
harremana ageri.

Lore sorta: Denbora luzean elkar lotuko
zaituzten konpromisoaren soka.

Kala

San Frantzisko, 24 - Tel.: 943 744 516

L O R A D E N D A

Enkarguak hartzen ditugu!

LARUNBAT ARRATSALDE HONETAN ZABALIK! 16:30etik 20:00etara

IGANDE HONETAN ZABALIK! 9:30etik -13:30era

2016an zehar hilero lore bat
izango dugu prezio berezian
Merkatal Federazioarekin batera.

Hona hemen OTSAILEKOAK





JAVI MUÑOZ

“Askatasunean maitatu nahi zaitut, ez dut jeloskorra izan nahi, ez dut errudun sentitu nahi, argaldu egin nahi dut eta ezin dut, joder!!!”

Rafa, nire utopia emozionala eraisten ari da. Mesedez, inor ez dadila honetaz jabetu, norberak duen irudi progrea mantendu behar baitu. Askatasunean maitatzeko paktoa egina dugu, gure denbora eta espazioak errespetatuz, beste pertsona batekin maitemintzen bagara ere.

Baina ez da hain erreza. Meloiondoko mutilari nola begiratzeko diozun ikusi dut, nola egiten dizun irribarre. Hain zara ederra. Bai, zu galtzeko ideiak ikaratu egiten nau. Badakit ez dela adostutakoa, baina momentu horietan zure unibertsoaren erdia izatearekin egiten dut amets, ni ederragoa, altuagoa eta argalagoa, ni bakarrik maitatu nazazun.

Patriarkatua gara, ikasi egiten dugu, indartu, eta transmititu, gure epigenetikan dago, eta horren kontra borroka egitea, norberaren kontra borrokatzea da. Baina posible da, borroka banakakoa eta kolektiboa da.

Gauza bat da pentsatzen dena eta bestea sentitzen dena; teoria praxia baino azkarrago doa. Ezin dugu sentitzen duguna erabaki, gehienez eta esfortzu handiz, gestionatzen ikas dezakegu.

Nahia ahal izatearen gizaratean bizi gara. Askatasunean maitatu nahi zaitut, ez dut jeloskorra izan nahi, ez dut egin edo ez eginagatik errudun sentitu nahi, argaldu egin nahi dut eta ezin dut, joder!!!

Pentsatzen duena sentitzen ez duelako atsekabetu egiten da bat, ez duelako esaten duena egiten, ez delako izan nahi duena, eta mingarria da, Rafa. Oso erraza da hainbeste esfortzuz merezi duen ala ez pentsatzeko tentazioan jaustea, bizitza motza da eta guk nahi duguna *this waltz* dantzatzea da.

Nik ere dantzatu nahi dut, baina nire utopia emozionala dantzatuko dut, muaka!



RAFA FURNIER



“Oraindik gustukoa zaitut. Badakizu zergatik? Benetako gizonak gustuko ditudalako”

Sentitzen dut. Agian zure urrezko ametsa urratu dut; ferekak marrubi zaporea duten eta hitzak gure ahoetatik luma baten leuntasunez irteten diren tokia. Sentitzen dut, baina agian ez nuke sentitu behar. Jakinaren gainean jarri zintudan. Meloiondoak hondamena ekarriko zigun, eta zuk, meloiondoarekin jo eta su, orduak eta orduak sartzen, ametsak, planak eta pozak eskainiz... eta nik, ez nekiela ez bandera, ez kuadrilla, ez dogmetara,... afiliatzen... are gutxiago meloiondo xume, aspergarri eta monotono honetara. Sentitzen dut. Niri aldaketak, nabarmenkeria eta, batzuek deitzen dioten bezala, ezegonkortasuna ditut gustuko, baina...

Begira gustukoa zintudala! Oraindik gustukoa zaitut. Badakizu zergatik? Benetako gizonak gustuko ditudalako, zu bezalako gizonak, zure lasaitasun eta gorputz eta ariman aritzen den horietakoa, nire kontrakoa; zu bezalako gizonak gustuko ditut, enbor bat zatitu gabe eta harri bati tira egin gabe berezia sentiarazten nautena; zu bezalako gizonak ditut gustuko, marikoi deitzeari bel-

dur ez diotenak; zu bezalako gizonak ditut gustuko, bai, zu bezalakoak; begirada garbia eta irribarre argiarekin...

Bai, aitortzen dut. Beste bat edo batzuk daude, eta agian baita beste neska bat edo beste. Sentitzen dut, zure San Balentinero ilusioa hautsi dut, eta, zitala ni, nire San Balentin propioa egin dut, nereko maltzur bat izanez eta zurekiko eta meloiondoarekiko daukadan konpromiso berezia ahaztuz. Meloiondo marrikatua! Esaten nizun nik! Eta nahi dudanaren eta naizenaren arteko borrokarekin zatozkit orain, egiten dudanaren eta pentsatzen dudanaren arteko borrokarekin... beharbada korronte alturno bati utzi beharko genioke gu eramaten, ilusio bulkada bati, eta idealak eta planak, momentu batez, alboratu; eta haragia baino ez garelako izan.

Sentitzen dut Jabi maitia, orain nire San Balentin propioentzat bakarrik dut denbora. Santutik gutxi duenez, nire Balentin propioan utziko dugu.

Muxu handi bat.



Monty Hallen zorioneko atiak

Eta jo daigun A atiarene aldeko aukeria egiten dezula zuk, koldar horrek. "Zer egin bihar naban ba?", esango diozu, etxeratutakuan, ernegauta, atian sartiaz bat, auzo lotsaz begittuko dizunari. Jo daigun aurkezlia A ateratu behar dala. Eta jo daigun azkeneko momentuan, A atia zabaltzeko derrigortutako imintziua egin ostian, "tratu bat proposatu" nahi

"Jo daigun telebistako lehiaketa baten azken txanpara aillegatu zerala eta hiru aterean aurrian plantatzen zaittula aurkezle higuin garri batek"

Jo daigun, zela ondo jakin gabe, telebistako lehiaketa baten azken txanpara aillegatu zerala. Jo daigun hiru aterean aurrian plantatzen zaittula aurkezle higuin garri harek (Monty Hall) jendiaren bihurtutako txalo eta telebista platoko fokuen argipian. "Hiru retako baten atzian miloi bat euro", ulertu diozu. "Beste bixen atzian ezer ere ez". Hor zaude bat-bateko erantzukizun handi batek mendian hartuta bezela; nahitza ere orrazkeria egokitu ezin. Jo daigun A, B eta C dirala atiak.

dizula esaten dizula. Aurkezliak ba eiz daki ate ona zein dan. B eta C atietako bat behintzat txarra dala ere jakinekua. Jo daigun, beste ezer esan aurretik, B atia zabaltzen dabala. Hamen dator tratua: "A aukeratu dezula. Ikusi dezula B atian atzian ezer ez dala. Aldatzeko aukera emango dizut. Zein aukeratu nahi dezula lehen zendukana, A, ala itxita dagan bestia, C?". Jo daigun, amaitzeko, zuk, zela ez, iñoi hutsik egin ez dizun galtaile sen horri segika, honezker berdin izango diola-ta lehenguakin gelditzia erabakitzen dezula. A zabaldu du. Ondotxo dakizu zer dagan. C zabaldu du. Emakume bat erdi biluzik, txeke haundixa eskuan. Ahor ba.

In aproba etxian. Jarri mandarina bat diruan lekuan eta jolastu. Ia aldatziak edo ez aldatziak berdin dion.



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
1821-2021



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► MENDAROKO SANTA ESKEA

Bizi-Poza txarangak, eskerrak eman nahi dizkie pasa den larunbatean santa eskean kantu kantari ibili ziren bertolari, trikitilari eta lagun guztiei. Baita, beraien borondatea erakutsi zuten herritar guztiei ere. Aurten txarangak 25 urte beteko dituenek, guztioi esker baturiko diruarekin, udaberrian ahalik eta egun ederrena antolatzen saiatuko gara, guztiok ospatu eta disfruta dezagun!!!

Bizi-Poza txaranga

► OTSAILAK 4!

laz elurrarengatik kale egin ondoren, aurten berriz ere irten gara kantuan eta eskean, baserriz baserri, Santa Agedaren oroimenez. Berezia izaten da otsailaren 4a Elgoibarko Izarrarentzat; gure herriko baserritarrengana joateko eguna izaten da. 1994an berreskuratu genuen ohitura zaharra, eta 22 urte ez dira alferrik pasa. Baserrietako aiton-amona asko eta asko joan egin dira gure artetik, eta urtero kantatzen dugu Salbea etxeren batean. Baina batzuk badoazen arren, Santa Agedaren

espirituak bizirik dirau oraindik gure baserrietan. Estimaten dute gure bisita; estimaten dituzte bertolarien koplak, eta ordainetan, etxeetako atek zabaldu eta jan-edana eta limosna ematen dizkigute.

Bi taldetan banatu eta zortzi ordu inguru kantuan eta eskean eman ondoren, Aiastiako soziedadean hartu genuen atsendena. Agustin eta Balentin genituen zain, afari ederra prest zutela, eta gustura jarri ginen mahaiaren bueltan, indarrak berreskuratu eta baserri atarrietan bizi izandakoa elkarri kontatzeko.

40 etxe inguru koplatu ditugu aurten. Nahi baino gutxiago, oraingoan ere, baina ezin gara denera iritsi. Barkatuko diguzue bateren bat zain egon eta zuen etxera joan ez baginen. Santa Agedaren babesa eta laguntza opa dizuegu zuei ere, Elgoibarko baserritar guztioi bezala.

Pozik hartu genuen etxerako bidea goizeko 01:00ean. Hurrengo egunean lan egin behar genuen gehienok, baina horrelakoetan pozak gaina hartzen dio nekeari. Hori bai, tristuraren itzala ere

buelbaka ibili zen gure inguruan. 20 urtean koplari lanetan jardun ondoren, Juan Mari Narbaizak ezin izan zuen etorri. Hutsune handia izan zen guretzat, baina badakigu penarik handiena berak hartu zuela. Lagunduko dio Agedak Narbaizari, eta datorren urtean gurekin izango da, berriz ere, otsailaren 4an. Disfruta dezagun!!!

Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldea

► ESKERRIK ASKO ETXEGIÑA TALDEARI

Eskerrak eman nahi dizkiet Etxegiña taldeko lagunei ohorezko makila eman izanagatik. Nahiz eta aurten parte hartzea ezinezkoa izan den, datorren urtean ez da faltako makila berri honen hotsa Elgoibarko auzo eta kaleetan.

Bide batez, lerro hauen bitartez zoriendu egin nahiko nituzke urtero-urtero abestera irteten diren herritarrek, giro aparta sortzen dute-eta. Mila esker denori!

Edu Uranga



Nikasia Elordi Arriaga

2016ko otsailaren 5ean hil zen, 92 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Olaben jaixo zan eguzki printza.
Errekaxik Kateira igo zun brisa.
Zurekin eta nerekin hori zan ibilixa.
Kresalak erutsu bizixa,
amuma.**

Etxekoak

Elgoibarren sailkatu gabe gelditzen den zaborra Cantabriako zabortegi batera hasi dira bidaltzen

Astelehenean hasi ziren Gipuzkoako zenbait lekutan jasotako zaborra Cantabriara bidaltzen, tartean Elgoibarkoa. Edukiontzi berdeetako zaborra eramango dute Cantabriako Meruelo herrira (Nojatik zazpi bat kilometrora). Edukiontzi berdean, batez ere hondakinak bereizten ez dituzten zaborra egoten da, sailkatzen dutenen errefusarekin batera. Eramandako hondakinak hango zabortegian botako dituzte.

Elgoibarko transferentzia gunea batutakoa hara eramango dute, argitaratuko informazioen arabera. Elgoibarkoaz gain, San Marko eta Sasieta mankomunitateetako zaborrak ere bidaltzen hasiak Meruelora.

Erraustegia egin bitartean

EAJren eta PSEren foru gobernua akordio bat sinatu zuen Kantabriako Erkidegoarekin eta, ondorioz, gutxienez 50.000 tona errefus eraman ahal izango dira urtean Merueloko zaborte-



Elgoibarko transferentzia gunea. Artxiboko irudia.

gira Gipuzkoatik. Jose Maria Asensio Ingurumen foru diputatuaren arabera, Zubietako errauste planta egin bitartean hartu beharreko neurria da. Elgoibarren jasotako zaborra Azpeitiko Lapatxeko zabortegira eramaten zen lehen.

Debabarreneko Mankomunitateak argitara emandako datuen arabera, Elgoi-

barren 2,67 tona zabor jaso ziren 2015eko urtarriletik azarora, bereiztu gabekoak. Kopuru horretan edukiontzi berdean, kale garbiketan, industriaguneetan eta landagunean jasotako zaborra sartzen da. Batez beste, elgoibartar baikoitzeko bereiztu gabeko 232,5 kilo zabor bildu ziren epe horretan.

Webgunea berri du Mendaroko Udalak



Diseinu berria estreinatu du *mendaro.eus* webguneak aste honetan. Mendaroko Udalak bere zerbitzuei buruzko informazioa emateko modua moldatu du eta eduki berriak sartu dituzte webgunean. Sonia Garcia alkatearen esanetan, "Web orri honetan Udalak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak jasotzen saiatu gara; uste dut hemen aurkituko dituzuela gure herriaren inguruko argibide eta jakin-garri guztiak".

Zoru klausulak eragindakoeak bilera egingo dute bihar, informazioa partekatzeke eta zer egin aztertzeke

Hipoteka kontratatzerakoan zoru-klausula dutenen bilera antolatu dute, gaiari buruzko informazioa jasotzeko eta aurrerantzean zer egin aztertzeke. Zoru-klausulak eragindako norbanako batzuek egin dute deialdia, eta klausularen ondorioz haien burua kaltetuztat duten guztiak gonbidatu dituzte. Biharko (zapateria) gelditu dira, 12:00etan Rural Kutxaren aurrean.

Zoru-klausula hipoteka mailegu batzuetan agertzen da, eta ordaindu beharreko gutxieneko interes-tasa ezartzen du. Zenbait kasutan, erabilzaileek erreklamazioak jarri dituzte gardentasun eta informazio argiaren irizpidea ez betetzeagatik, eta epaileek klausulak bertan behera laga izan dituzte, abusuzkoak izatea iritzita.

Lanbide Heziketa eta industria ikasleei gerturatzeko jardunaldiak hasiko dira



Lanbide Heziketa eta industria mundua ezagutzeko jardunaldiak antolatu ditu Elgoibarko Udalak, otsailaren 15etik 19ra eta martxoaren 1era. Goratu, Manahmana, IMH eta Mekaren lankidetzarekin antolatuko dute aurten.

Otsailaren 15etik 19ra bitartean, tailer dinamikoak egingo dituzte, Lanbide Heziketa eta Industria mundua ezagutzeko. Elgoibar Ikastolako eta Arreiturre Institutuko DBH 4ko ikasleek parte hartuko dute saio horietan. Horrekin batera, Goratu enpresa ikustera joango dira ikasleak. Lantegian, gaurko gizartearen estereotipoen hausnarketa egingo dute.

Martxoaren 1ean berriz, IMHren eta Meka Lanbide Eskolaren prestakuntza eskaintzari buruzko informazio saioa antolatu dute Arreiturre Institutuko Batxilergo 1. eta 2. mailetakoko ikasleentzako eta gurasoentzako. Saioa 19:00etan hasiko da, Arreiturre Institutuko eta Meka Lanbide Eskolako bilera-gelan (Arregitorre kalea, 2 eraikina).

Tratu onen aldeko tailerra martxan jarriko dute Mendaron

Mendaroko herritar batzuen ekimenez, tratu onen aldeko tailerra jarri nahi da martxan. Lehen bilera domeka honetan izango da, 10:30etik aurrera, Gaztelekuko lokalean. Tailer honen bidez emakumeen eskubideak sendotu nahi dituzte. Beste herri batzuetan hasiak dira era honetako esperientziak martxan jartzen. Gehienbat, andregizonen arteko tratu onen alde egiteko, modu hezitzailean jardun nahi dute, ekintzen bidez, protokoloen bidez edota lan prebentiboaren bidez. Tailerra irekia izango da eta nahi duten mendarotarrek parte hartu ahal izango dute, bai gizonak, bai emakumezkoak.

Martxoaren 2an egingo dute Uparitzagako babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa

Uparitzaga kalean eraikiko diren babes ofizialeko hamasei etxebizitzaren zozketa martxoaren 2an egingo da. Guztira 58 pertsonak egin zuten eskaria promozio honetarako. Horietatik, sei eskaera baztertu egin behar izan dituzte baldintzak ez betetzeagatik. Zozketa Eusko Jaurlaritzako Lakuako egoitzan egingo dute martxoaren 2an (Donostia kaleko 1ean, Lakuako 2ko 1go aretoa), goizeko 10:30etik aurrera. Hala ere, zozketa zuzenean jarraitzeko aukera ere eskainiko dute, streaming bidez, www.irekia.euskadi.net webgunean.

Angela Davisi ez diote laga Arnaldo Otegi bisitatzen

Angela Davis beltzen eta emakumeen aldeko ekintzaile estatubatuarrek Euskal Herrira egindako bisita aprobetxatu zuen Arnaldo Otegi Logroñoko kartzelan bisita egiteko. Azkenean baina kartzelan sartzea debekatu zioten. Debekua "negargarria" dela esan zuen. "Ohore bat da gaur hemen egoitea Otegiaren eta Euskal Herriko preso politiko guztien askapena eskatzen duen manifestuko sinatzaileetako bat bezala", adierazi zuen Davisek.



Amengandik amengana

Herriko edozein txokotan ikus dezakegu gaur egun ama bat bere haurrari bularra ematen eta gehiengoari ez zaio arraroa iruditzen. Beraien esnea ematea aukeratu zuten Ainize Saez eta Naiara Eizagirrek eta amagandiko edoskitzeari –laktantziari– buruzko interes berezia izan dute beti. Interesa beraiena bada ere jakin badakite beste ama batzuk eta ama ez direnek ere badutela horri buruz gauza berriak ikasteko asmoa. Edoskitzea ez da, ordea, amek umeeke izan ohi duten zalantza iturri bakarra, eta Ainizek eta Naiarak Maitasunez Hezi taldea sortu dute amatasunak berak eragiten dituen zalantzak, bizipenak, informazioa... beste ama batzuekin partekatzen. Lehen aldiz bihar, zapatua, 11:00etan elkartuko dira Kultur Etxean besteak beste guraso eta umeeke elkarri zenbat zor dieten ikusteko.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Amaren bularra, haurraren janari dio kantuak eta hori da, hain zuzen ere, maitasunez hezitzeko bidean eman beharreko pauso bat izen bereko taldearen ustean.

Ainize Saez eta Naiara Saezek jarri dute abian Maitasunez Hezi taldea eta beraiek umeei jaten ematen dieten moduan elikatzeko beste modu bat partekatu nahi dute beste ama batzuekin. Gurasotasuna bizitzeko informazioa izango dute elikagai eta horretarako taldean elkartuko dira edoskitzeaz ez ezik umeeke sortzen dizkieten zalantzak, beharrak, ezinak... partekatzen. Ama izan ziren biak eta gero doulan –haurdunaldiaren prozesuan, bereziki erditzean eta erditze ondoren laguntza psikologikoa ematen duten titulazio ofizialik gabeko pertsonak– ikastaro bat egin zuten, nahiz eta beraiek doulak ez izan. Ikastaroaren ondoren, amen arteko elkargune bat sortzea pentsatu zuten. “Gure haurdunaldietan eta amatasunean izan ditugun esperientziak eta sumatu ditugun gabeziak eta beharrak izan dira taldea sortzeko arrazoietakoa bat. Bakoitzak amatasuna bere modura bizi du, baina askotan beste batekin hitz egiten dugunean konturatzen gara gauza berak gertatzen zaizkiola. Beraz, bateratzeko eta elkar laguntzeko taldea izango da”, dio Ainizek.

Amengandik amenganako talde modura aurkeztu bazuten ere, taldea irekia dela argitu dute. “Haurdun daudenak, umeeke dauzkatena, besterik gabe gaia interesatzen zaienak... etor daitezke, baita aitak ere, noski. Badirudi laktantzian amek dutela pisu guztia, baina aitek ere badute garrantzia”.

TALDE IREKIA

Gurasotasunaren inguruan askotariko gaiak lantzea da asmoa –umeeke nola lo egiten duten, solido jaten hasten direnean zer...–, baina Naiarari edoskitzearen gaiak piztu zion arre



Naiara Eizagirre bigarren umearen esperoan dago eta Ainize Saez bi haurren ama da.

gehien eta taldean horri helduko diote hasteko. Naiarak dio profesionalki ez dutela gaia kontrolatzen, baina esperientziatik bai. “Urte askoan galduta egon den arren, gaur egun gero eta jende gehiagok ematen du bularra. Ez da biberoi bat ematea bezalako, hala ere, niri oso errespetagarri iruditzen zait beste modua ere. Talde honekin gure asmoa ez da inor gaizki sentiaraztea edo edoskitzea ez den beste edozein bide egokia ez dela esatea, dena errespetatuko dugu”. Ainizeren ustez, informazio faltak edo inguruan umeari bularra luzaroan eman dion norbait ez izateak sortzen ditu zalantzak eta askok horregatik jotzen du beharbada biberora.

Bost urte beteko ditu aurten Ainizeren lehen umeeke eta 30 hilabetez eman zion hari titia; bigarrenak, berriz, 22 hilabete dauzka eta oraindik ematen dio. “Laktantziaren esperientzia zabal da eta askotan zaila ere lanagatik-edo, baina gure kasuan aurrera eramateko aukera izan dugu. Lanean hasi nintzenean lehenengoari han bularra emateko aukerarik ez nuen eduki, baina

esnea ateratzen nuen eta etxekoei lagatzen nien biberioia emateko. Bigarrena, aldiz, nirekin egoten da lanean eta berak nahi duenean ematen diot. Ama kanpoan lanean hasi arren, badaude bere esnea emateko formulak: esnea atera, kongelatu... Gero biberioian ez bada goilararekin ere ematen diote batzuk umeak biberioia onartzen ez badu". Naiarak lehenari umeak titia hartzeari utzi zion arte eman zion; orain berriz haurdun dago eta asmo bera dauka. Denboraldi batez etxean egon zenez errazagoa izan zen beretzat, baina ulertzen du lanean hasterakoan aldaketa zaila izatea. "Ni lanean hasterako umea moldatzen zen zazpi orduz titirik hartu gabe, baina bajak motzak direnez... Munduko Osasun Erakundeak dio sei hilabetez eman behar zaiela amaren esnea bakarrik eta bi urtera arte osagarriekin, beste gauza batzuk probatzen, baina hori zaila da kanpoan lan eginez gero".

ONURAK, DENAK

Amaren esnea ematen diete umei naturala delako, beti egon dena biberioirik ez zegoenetik eta onurak denak dauzkala uste dutelako. "Beste esnea da hain ona ez dena ez delako amarenaren parera iristen. Naturalena da normalena", dio Naiarak. Ainizeren ustez, "amarena modukorik ez dago, erosten dena ezin da berdina izan, baina guk errespetatzen ditugu biberioia ematen diotenak ere".

Hala ere, kostatzen da naturaltasun hori bermatzea laktantzia arazo batzuk sortzen direlako. "Bakoitzak bere arazoak izan ohi ditu: titipuntak zartatzea, postura txarrak... Taldean beharbada aterako dira horrelako arazoak, baina horrelakoetan profesionalengana jo behar izaten da gehienetan. Gauetan umeak orduro esnea eskatzean nekea sortzen da, lau hilabeteren ondoren umeak atzera egiten duenean esnerik ez daukagulako dela pentsatzen dugu, nahikoa esne hartu ez duelako negar egiten duela pentsatzen dugunean beste zerbaitegatik izan daiteke eta horrek norberarenganako konfiantza falta eragiten du. Beste ama batzuen bizipenak entzuteak laguntzen du horri aurre egiten eta batzutan laktantzia naturalarekin jarraitzea animatzen du", dio Naiarak.

MITOAK

Amaren esnari buruz mito asko daude eta besteak beste talde honek horiek argitzeko balio dezakeela uste dute. Esaterako urtutako esnerik ez dagoela dio Naiarak. "Esnea amarena da eta bakoitzarena dagoen moduan dago. Normalean esnea umearen faseen arabera sortzen da. Etena egon dela esaten duenik ere bada, lau hilabete inguruan, eta zientifikoki hala diote hainbatek, baina izan daiteke brote bat, beraz, ez dakit zenbateraino den mito. Informaziorik ezean eta emaginarengana joan ezean kezka handitu egiten da".

"Eskatu ahala emanez gero, pila bat hartzen du, eta noizbait amak izan dezake betetzen ez den ustea, baina zenbat eta gehiago eman gehiago bete behar da eta gehiago produzitzeko umeak hartu egin behar du. Beste batzuek uste dute pila bat hartzen duenean ez dutelako dela...", dio Ainizek.

Mitoekin hasita beste asko ere kontatu daitezkeela uste dute: "Badirudi 21:00etan biberioia emanez gero, gau guztian lo egingo duela eta hori ume guztiek ez dute egiten, batzuek, betetzeaz gain, kontaktua behar dute. Guk eskatu ahala eman diegu eta laktantzia batek funtzionatzeko hala izan behar du, ez 10 minuturo eman eta titi bakoitzean 10 minutuz. Lehen horrela esaten zen, baina orain ez dute hori gomendatzen emaginek ere, gauzak aldatuz doaz".

Emaginarengana joaten dira, bai, baina hainbatean behin eta ez dago apenas astirik norbere zalantzak argitzeko. "Norberak izan dezake kontatzeko beharra, baina kontsulten orduak mugatuta dauzkate. Kontatu beharrekoak ama bati kontatzeko modukoak dira eta beste ama batek esan diezaioke zer egin. Hori da taldea sortzeko arrazoietako bat".

Zapatuan elkartu eta taldean esandako dena han geldituko da norbere gauza pertsonalak kontatzen direlako. Haurraren negarra beti da hunkigarri eta amek negar horiek isiltzeko beren artean hitz egin ahal izango dute.

Leku publikoetan bularra ematea debekatuta?

Leku publikoetan, jende aurrean haurrari bularra ematean, izan dira kanpora ateratzeko agindua jaso duten amak eta ez oso urruti gainera, Bilboko Alhondigan bertan esaterako. Ez al da kezkarria ama batek haurra elikatzeagatik kanporatua izatea?

Ainizek dio tontokeria bat iruditzen zaiola kalean bularra ematen egon eta norbait ezer esatera etortzea. "Nik edo-

zein tokian eman izan diot titia eta begiraturaz gero begiratu nazatela. Nire gorpuztarekin, nire titiekin eta nire umearen janariarekin nahi dudana egiten dut, jaten ematen bainago".

Facebook sare sozialean ere umei bularra ematen agertzen den ama baten argazkia jartzea pornografikoa omen da eta "gero edozein publizitatetan sekulako eskoteak ikusten dira. Gizarteak uste du ti-

tiak luzitzeko baino ez direla baina benetan jaten emateko dira", dio Naiarak.

Ez dakite orain kalean lehen baino gehiagok edo gutxiagok ematen duen bularra, baina uste dute denboran luzatu egiten dutela.

Batzuk agerian eta besteak estalita –hori egiten dutenak ere badaude–, baina edonon edoskitzeko eskubide kontuan hartuta.



INAUTERIAK ARGAZKITAN

Bideo eta argazki gehiago: www.barren.eus



INAUTERIA







“Surflaririk onena olatuekin ondoen pasatzen duena da”

▶ KEPA ACERO SURFLARIA

Algotarra da Kepa Acero. 80ko hamarkada amaieran surfa “demokratizatzen” hasi zenean anaia Eneko lagunekin surfean hasi eta maila ona hartu zuen. Profesional moduan hasi zenean, haren bizimodu, bidaiak... ikusita Kepak ere horra bideratu zuen bere taula. Egun guztia hondartzan pasatzen zuten eta olatuak ametsa itsas ertzerara ekarri zien: surfetik bizi izatea. Surflari profesionala izatetik, ordea, surfa beste era bateko bizimodu izatera pasatu da Keparentzat. Hartutako olatuak dokumentaletan jaso ditu eta zipriztin horiek bistaraziko ditu otsailaren 28an, Herriko Antzokian, 21:30ean.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



♦ Surf txapelketetan ibilitakoa zara, baina gero utzi egin zenituen. Zergatik?

Txapelketak asko gustatzen zitzaizkidan eta 18tik 28 urtera arte munduan barrera txapelketetan ibili nintzen, baina beti hondartza berberetan eta txapelketetan oso murgilduta. Esaterako, 10 urtetan Brasilen egon eta oraindik ez nuen ondo eza gutzen. Beraz, erabaki nuen txapelketak uztea eta surfean jarraitzea baina modu erromantikoago batean; olatuak bilatzea, baina giza esperientzia aberatsagoekin.

♦ Mundu osoan olatu onenen bila ibili zara, baina denak ez dira berdinak izango. Zein da onena?

Surfistok mugitzen gaituena ez da olatua bera bakarrik, olatuaren kalitatea baizik. Guretzat mundu mailako olatuak mendizaleentzat 14 zortzimilakoen parekoak dira. Guri gustatzen zaigu olatuen barruan, hodiedan joatea, eta hori oso leku gutxitan gertatzen da, beraz horren bila joan nintzen toki askotara. Baten bat azpimarratzekotan Namibiako desertuko olatu bat aukeratuko nuke. Onena litza-teke Mundakakoagatik ez balitz. Munda-

kakoa mundu mailako olatua da, baina Euskal Herrian egonda bereziagoa da, lagunekin eta familiakoekin ibiltzen bainaiz.

♦ Mundakako olatua da onena zuretzat. Beraz, desagertuta egon zenean...

Neguan sarri gara Mundakako olatua agertuko den ilusioarekin. Nahiz eta erraza ez izan, magia bezalakoa da. Desagertu zenean gure bizitzari zentzua ematen zion gauza garrantzitsu bat desagertu zen, baina zorionez bueltatu da.

♦ Mundakatik Afrikara egitasmoa ere egin duzu. Nolakoa izan da?

Azken urteetan Latinoamerika eta Afrikan ibili naiz asko eta orain ere hortara bideratuta nago, beste bidaiak bat prestatzen. Latinoamerika olatuengatik bakarrik ez, beti izan da kontinente berezia niretzat, itxaropenerako kontinentea bizimodu eta esperientzia eskaini dizkidalako; baita Afrikak ere. Kontinente pobreak dira eta eduki dituzten arazoengatik gutxien esploratuak eta hori gustatzen zait gehien. Kul-

turalki ere oso erakargarriak dira. Han pasatzen dut nire bizitza erdia.

♦ Hainbeste bidaiarekin olatuak ez ezik hango jende eta bizimoduak ere ezagutuko dituzu, ezta?

Afrikan eta Latinoamerikan olatuak bilatzea da helburua, baina irudietan ekaritzen dudana esperientzia da. Bakarrik joan naizenean leku guztietan familia bat aurkitu dut, eta hori oso berezia da. Gaur egun komunikabideetan leku haiei buruz hainbeste gauza txar ikusi arren, bakarrik bidaiatuta konturatu naiz elkartasun asko dagoela, eta niretzat hori itxaropen mezua da. Indonesian, esaterako, denbora dezente pasatu dut inkomunikatuta telefono eta internet gabe, hizkuntza ere jakin gabe, baina badago giza hizkuntza bat. Han utzi nuen familia bat, eta gerora ere bueltatu izan naiz bisitan.

Frantzian edo Portugalen badaude oso olatu onak, baina esperientziak ez dira berdinak. Abenturaren esentzia zer



gertatuko den ez jakitea da eta hori bilatzen saiatu naiz ni. Beldur moduko bat sortzen du, baina baita ziurtasun handia eman ere eta hor talka dago.

Denok aldatu egiten gara, baina asko bidaiatu dudanez ikuspegi ezberdin batek ikusten ditut gauzak, bai kanpokoak, baita Euskal Herrira iritsitakoan gure herria eta izateko modua ere. Nik maite dut gure herria, eta hemen oso gustura nago. Baina bizi garen gizartean kontsumismo-arekiko obsesioa izugarria da. Uste dut gure gizartean oso nahastuta gaudela horrekin, beti ere termino orokorretan ikusten den atmosferari begiratuta.

♦ **Abentura diru gutxirekin bizi izan duzula esan izan duzue kontaketetan. Askok, ordea, surfa kirol garestitatzat du.**

80ko hamarkadan jende askok ez zeukan taula erosteko ahalmenik. Batez ere Estatu Batuetatik ekartzen ziren eta oso garestiak ziren. Denborarik ere ez zeukan jendeak eta surfa egiteko denbora behar da. Urte haietan surfa egiten zuen jendea diruduna zen, hippya, denbora asko duna... Hortik dator topiko hori, baina gaur egun edozeinek erosi dezake taula eta surferako jantzia nahiko merke eta uretara sartu. Uretara sartzea doan da.

♦ **Beraz, surfa zuretzat ez da kirola bakarrik?**

Surfetik bizi naiz 18 urte nituenetik eta nire filosofia surfera egokitzen dut. Surfa niri gustatzen zaidana da, eta oso garrantzitsua da argi izatea norberak zer nahi duen. Azken mezua ez da kirol bat modu profesionalean egin ahal izatea, baizik eta bakoitzak berari gustatzen zaion hori egitea. Denbora laburrerako gaude

hemen eta ahal den heinean gustuko gauzak egin behar ditugu nahiz eta askotan gizarteak ez digun uzten.

Surfa, kirolaz gain, naturarekin harremana izateko medio bat da niretzat. Hori da hainbeste surfista harrapatzen gaituena. Uretara sartzeko eta gelditzen den guztia atzean uzteko uretan sartzeko denbora bilatzen dugu.

♦ **Zer behar du surflari on batek?**

Surfean asko esaten da surflaririk onena dela olatuekin ondoen pasatzen duena. Niretzat olatu aprosak dira hiru metro ingurukoak eta hodiak dauzkatenak. Nire neska-lagunak, ordea, ez dauka maila hori, baina gozatzen du bere erara metro erdiko olatuekin Soperlako hondartzan.

“Surfa, kirolaz gain, naturarekin harremana izateko medio bat da niretzat”

♦ **Surfa bizi bai, baina biziarazi ere egiten duzue zure blog, dokumental edo erakusketen bidez.**

Esperientzia pertsonala izan arren niretzat oso garrantzitsu bihurtu da partekatzea. Mezua iristen bazaie –nahiz eta

persona bakarrari izan– eta erabaki bat hartzeko balio badie badu zeresanik.

Teknologia gaur egun sekulakoa da komunikatzeko ez ezik beste kontu batzuetarako ere. Gaur, adibidez, badakigu astebete barru olatuak iritsiko direla Cabo Verdera eta denbora izaten dugu hegazkinean joan eta olatuak hartzeko. Ni horrela ibiltzen naiz eta gustatuko litzaidake



gehiago egitea baina dirua behar da. Obsesio moduko bat daukat mapekin, ekaitzekin eta mugimendu atmosferikoen. Egunero begiratzen dut mundu guztian gertatzen ari dena.

Surf tauletan ere aurrerapen teknologiko handiak daude. Taulak, gilak, jantziak... aldatu egiten dira pixkanaka. Niri, esaterako, Pukasen probak egitea gustatzen zait. Gauzak gaizki ateratzen direnean ere ikasten dugu, eta gauza polita da ikerketa.

♦ **Hainbat egitasmo bizi izan dituzue surfaren baitan. Zein da zure hurrengo ametsa?**

Martxoan, Galapago irltara bakarrik joateko asmoa daukat. Gero Islandiara eta Irlandara ere joango naiz eta uda sartzan denean gustatzen zait beste emisferiora begiratzea, beraz, seguru asko Afrikan pasatuko dut denboraldi bat.

Hegazkina hartzen dut eta gero geroakoak. Google Earthen bitartez bilatzen ditut kostaldeak eta hango egoera. Batzuetan agertzen dira olatuak eta beste batzuetan ez. Baina dena inprobisatua izaten da. Nik eramaten ditut kamerak eta gero muntaiak egiten ditut, artisaulana izaten da dena.



Koplak Santa Agedaren omenez

Eguena eta zapatua Santa Agedako koruen txanda. Eskoletan lehenengo ahotsak altxatu eta makilekin lurrean dinbi eta danba. Baseriz baseri Elgoibarko Izarrako bi talde ere kantari, bisitatu zituzten makina bat atari eta giro onean hartu zituzten baseritarrek denak, koruko, koplari eta trikitilari. Zapatuan, Etxegiñakoak, Santa Ageda gogoan ibili ziren borondate bila, aurrez Fernando Etxeberria eta Edu Urangari eman zieten ohorezko makila. Guztiek eman nahi dizkiete herritarrei esker mila.



Herri Eskolakoek ikastetxean abestu zituzten koplak; Ikastolakoek, berriz, herriko kaleetan.



Arg.: Soarte

Etxegiña taldekoek Fernando Etxeberriari eta Edu Urangari eman zizkioten ohorezko makilak.



Elgoibarko Izarrakoak baseriz baseri ibili dira kopla kantuan.

Urpeko bolkanismoari buruzko irteera antolatu du Haizeak



Haizea taldeak Sallobente-Ermuaranera egindako beste irteera bateko irudia.

Haizea emakume taldeak antolatuta, kultur irteera izango da otsailaren 21ean (domeka). Goizeko 10:00etan, Santa Ana kaletik irten eta Maltzagara abiatuko dira. Inma Mugertza Geologian doktore elgoibartarrak urpeko bolkanismo kretazeoaren inguruko argibideak eskainiko dizkie. "Txangoak duela 85 milloi urte inguru atzera eramango gaitu. Garai hartan, ingurune honek bestelako itxura zuen, itsaso tropikal batek estaltzen zuen guztia. Bapatean, Lurra bere muinetik laba jauritzen hasi eta sumendi-ilarak sortu ziren itsas azpian. Sumendiek jaurtitako magma hoztu eta mineral, egitura eta itxura ezberdineko harriak garatu ziren; dikeak, pillow-ak, bretxak... Maltzagako bi-degorriak ezaugarri horiek miatzeko aukera emango digu", dio Mugertzak.

Tomax pailazoak festa ekarriko du Elgoibarrera hurrengo domekan

Tomax eta Muxugorri pailazoen *Festara* eskainiko dute otsailaren 21ean (domeka) herriko antzokira. Beste modu batean esanda, jaiak ospatzera etorriko dira. Horregatik 4 urtetik gorakoentzako ikuskizun honetarako jai egitarau betea ekarriko digute: pregoia, txupinazoa, txaranga, entzierroa, Muxugorri magoa, buruhandiak, batukada, harrijasotzaileak, euskal dantzak, karaokea, txiste txarren lehiaketa, haur jolasak eta barrakak.



Arg.: Goiëna

Jolas korporatiboetarako buruzko hitzaldia eskainiko dute eguaztenean Mendaron

Jolas korporatiboak haurtzaroan: garapen sozioemozionalean eta biolentziaren prebentzioan duen garrantzia izenburuko hitzaldia ematera etorriko da Maite Garaigordobil, EHUko ebaluaketa eta diagnostiko psikologikoko katedraduna. Hitzaldia Mendaroko Ikastolak antolatu du eta eguaztenean eskainiko da (hilaren 17an), 18:00etatik aurrera. Ikastolako gurasoentzako, irakasleentzako eta langileentzako antolatu dute.

Udal Musika Bandak Herriko Antzokia girotuko du domekan

Domekan, Elgoibarko Udal Musika Bandak honako pieza joko ditu Herriko Antzokian, 12:30etatik aurrera. *Tierra Fecunda* kontzertu martxa (R. Dorado), *Fausto* opera dantza (Gounod), *Aladin* film doinua (Jennings), *The mission*eko *River* eta *Gabriel's Oboe* (Morricone), *Abba Gold* (Ulvaeus & Anderson) eta *Nostalgia Malagueña* pasodoble flamenkoa (Silguero). Aitor Novak bakarlari gisa parte hartuko du.



Beldurrezko filmak eskainiko ditu Sutegixa gaztetxeak otsail honetan

Gaztetxeak beldurrezko filmetara tartea egingo die hilabete honetan. Aurreko domekan *Psikosis* filma eskaini ondoren, *The Descent* emango dute otsailaren 14an (19:00). Film honetan, sei lagunek mendi irteera bat egiten dute; espedizioaren hasiera espero bezalakoa zen, haiek jan nahi dituzten izaki arraro batzuen berri izan arte. Otsailaren 19an *Déjame entrar* filma botako dute (22:30) eta 26an, berriz *Euskal Herriaren ABDak* (22:30).

Mailari eusteko partida erabakigarria jokatuko du Laukok bihar, Olaizaga kiroldegian

Zilarrezko Ohorezko Mailan jarraitzeko garrantzi handiko partida jokatuko du Lauko Elgoibar taldeak zapatuan (otsailak 13), Olaizaga kiroldegian (19:30). Kanariar uharteetako Tenerife C.B. Salud taldearen aurka neurtuko dira elgoibartarrak. Bi taldeak dabilta larri. Lauko azken aurreko postuan sailkatuta dago, -hamargarrenean-, 4 punturekin. Jokatutako hamalau partidetatik bi irabazi eta gainerakoak galdu egin ditu Laukok. Tenerife, berriz, zortzigarren postuan dago, 12 punturekin. Hortaz, jaitziera postuetatik aldentzeko norgehiagoka izango da. B multzoko hamaiika taldeetatik azken sailkatuak galduko du maila eta une honetan San Adrian dago sailkapeneko hondarrean, 2 punturekin. Jokoan dauden puntuen garrantzia ikusita, Laukok zaleen indarra behar duela jakinarazi du Sanlo kirol taldeak eta Olaizagako harmailak betetzeko deia egin die herritarrei.

Senior gizonezkoak sendo

Laukorenaren aldean oso bestelakoa



da Alcorta Forging Group senior gizonezkoen talde nagusiaren egoera. Sailkapenaren erdian egonkortuta daude elgoibartarrak, zortzigarren postuan, hain justu ere. Jokatutako hemezortzi partidetatik hamar irabazi, bat berdindu eta zazpi galdu dituzte orain arte. Zapatuan Olaizagan jokatuko dute Barakaldo taldearen aurka. Garaipena lortuz gero, sailkapeneko aurreko postuetan egoteko borro-

kan sartuko dira bete-betean elgoibartarrak, ligako azken txanpari begira. 17:45ean hasiko da partida. Are egoera hobean dago Sanloko senior gizonezkoen bigarren taldea. Gabaz liderrarekin berdinduta dago, eta honenbestez, Bigarren Nazional Mailarako igoera fasea jokatzeko postuetan. Zapatuan, Legazpiren aurka jokatuko dute, 16:00etatik aurrera, Olaizaga kiroldegian.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

A. Garate

Era guztietako igeltzeritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651

ARMAZOIA + LENTEAK **89€**-TIK

SHE'S IN
VOGUE
L'ESSENTIEL

Adriana Lima
in Rio de Janeiro, Brazil.
www.eyewear.com



Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio
RPS 183/12
www.uzurioptika.com

Zabalik dago Kilimon Trail mendi lasterketarako izena emateko epea



S eigarren urtez jarraian, Kilimon Trail mendi lasterketa antolatu dute apirilaren 10erako, eta antolatzaileek jakinarazi dutenez zabalik dago lasterketarako izen-ematea. 10:00etan abiatuko dira lasterkariak Mendaroko Herriko Enparantzatik. 23 kilometroko ibilbidea osatu eta 1.500 metroko desnibel positiboa gainditu beharko dute. 17,5 kilometroan, gainera, 300 metroko kronoigoera bat ere izango da Gaintxipixa mendira. Izen-emateak www.kirolprobak.com webgunearen bidez egin behar dira. Lehenengo alditik parte-hartzea handituz joan da urtez urte, eta ia 245 korrikalarik lortu zuten proba bukatzea. Urte hauetan izen handiko lasterkariak pasa dira Mendarotik, tartean munduko txapelketan nabarmendu diren asko, eta proba honek leku bat egitea lortu du izen handiko mendiko lasterketen egutegian. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, Mendaro herria gehiago ezagutarazi eta orain arteko edizioak hobetzeko gogor ari dira lanean, eta ziur daude emaitza "dorea" izango dela.

Artazoren eta Olidenen idien arteko dema otsailaren 27an

Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak antolatuta, idi-dema jokatu dute Elgoibarko Artazok eta Orioko Olidenek Sigmako probalekuan. Murgil harria (1.775 kilo) mugitu beharko dute idiek orduerdiko lanean. 1.200 euro jarriko ditu alde bakoitzak eta nahi duen karreteroa ere alde bakoitzak aukeratuko du. Goizean egingo dute pisaketa, 10:00etan, eta 22:00etan hasiko da desafioa.

Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 0 - Zarautz 1

Elgoibar 1 - Beti Ona 1 (Erreg.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 2 - Segorbe 3 (Naz. B)

ESKUBALOIA

Kukullaga 40 - Lauko Elgoibar 26 (Senior emak.)

Tolosa 31 - Alcorta Forging Group 23 (Senior giz.)

Zarautz 31 - Beristain Banaketak 20 (Jub. mut.)

Pneumax Elg. 21 - Pulpo 23 (Kad. nesk.)

Deca Elgoibar 38 - Basauri 38 (Kad. mut.)

Agenda

ESKUBALOIA (Olaizagan)

Zapatua, 13

10:00 Bankoa - Bidasoa A (Kad. mut.)

11:30 Tecnifuelle - Egia (Jub. nesk.)

16:00 Gabaz - Zuauto Katilu (Senior. giz.)

17:45 Alcorta - Baracaldo (Senior. giz.)

19:30 Lauko - Salud Tenerife (Senior. emak.)

Domeka, 14

11:30 Pneumax - Aloña Mendi (Kad. nesk.)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 13

10:00 Elgoibar - Ordizia (Inf. Txiki)

16:30 Elgoibar - Euskalduna (Oho. jub.)

Domeka, 14

10:00 Elgoibar - Antiguoko (Benj.)

11:00 Elgoibar - Antiguoko (Aleb.)

12:30 Elgoibar - Ordizia (Oho. inf.)

Arbilera mendi irteera antolatu du Morkaikok otsailaren 21erako

Lasturren dagoen Arbil mendira irteera antolatu du Morkaiko mendi taldeak, Herri Eskolako eta Elgoibar Ikastolako gurasoekin elkarlanean, otsailaren 21erako. Aipaturiko ikastetxeetan eman beharko dute izena joan nahi dutenek. Joan den urtarrilaren 31n egin zuten azken mendi irteeran 60 bat ume eta beste horrenbeste guraso ailegatu ziren Besaideko gailurreraino, Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaia muga egiten duten punturaino, hain justu ere. Lainoek ez zietela Anboto gaina ikusten utzi azaldu dute Morkaikotik, baina Durangaldeko eta Debagoieneko bailaren ikuspegi ederraz gozatu zuten.



LANA.....**Eskaerak**

Adineko pertsonak zainduko nituzke ateburuetan. Interna lan egiteko prest. Erreferentziak dauzkat. 632 573 554

Pertsona arduratsua adinekoak edo umeak zainduko lituzke. Interna lan egiteko prest. Esperientzia eta erreferentziak dauzkat. 631 291 645

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. 692 588 534

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. 617 571 210

Lan bila. Elektrizitate, iturgintza eta pintura lanak egiteko prest. 10 urteko esperientzia. 632 873 111

Pertsona nagusiak zaintzeko prest. Erreferentziak dauzkat. 631 534 125

Haurrak eta adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetan jarduteko prest. 655 094 780

Etxeak, hotelak, jatetxeak eta zaharren egoitzak garbitzeko prest. Interna, orduka edo gauka aritu naiteke. Esperientzia handia daukat. 626 914 904

Arratsalde, astelehenetik ostiralera adinekoak zaintzen edo garbiketetan egingo nuke lan. 631 098 995

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest, orduka. 684 318 696

Adinekoak zaindu edo garbiketa zein sukalde lanetarako prest. 616 554 004

Adinekoak zaindu eta tabernak edo portalak garbitzeko prest. 631 790 555

Adinekoak edo umeak zaindu, garbiketa lanak egin edo sukalde lanetarako prest. 666 380 843

Adinekoak zaindu edo garbiketa zein sukalde lanetarako prest. 677 259 560

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. 692 332 871

Adinekoak zaintzeko (titulua daukat), garbiketa lanetarako eta baserrietan lan egiteko prest. 640 209 948

Garbiketan edo sukaldari-laguntzaile lan egingo nuke, esperientzia handia dut. 659 321 517

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak orduka egiteko prest. 686 578 228

10:00-16:00 bitartean orduka edo gauze nagusiak zaintzen eta garbiketetan lan egiteko prest. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. 620 258 708

Lan bila nabil garbiketetan, umeak zaintzen edo tabernetan. 15 urteko esperientzia daukat. 602 146 153

Eskarmentu handiko zaintzailea lanetarako prest: etxeak garbitu, nagusiak paseatu, haiei jarraipena egin... Diplomatu. Esperientzia eta informea ditut. Euskalduna. 675 711 658

Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak ematen ditut. 688 895 568

Lan bila nabil. 631 133 431

Lan bila nabil. 633 767 696

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Ikasketak eta esperientzia ditut. 671 989 434

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak orduka egiteko prest. 30 urte baino gehiagoko esperientzia dut (Elena). 660 511 781

Emakume arduratsua adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. 631 748 977 edo 632 454 417

Umeak zein adinekoak zaintzenko prest. Bi edo hiru orduz arratsaldeetan. Garbiketa lanak ere egiten ditut. 631 275 541

Eskaintzak

Neska euskalduna behar da Artonan interna moduan lan egiteko. 653 569 293 (Lurdes).

Mahats ardote girako zerbitzaria behar da. Bidali CVA tabernara. 646 936 092

Emakumea behar da Batxilergoko 2. mailako matematika eta kimikako eskola partikularrak emateko. 634 462 336

ETXEBIZITZAK.....**Salgai**

Etxea salgai dut Elgoibar erdigunean. Bosgarren solairua, igogailuarekin. 616 111 603

Alokairua

Elgoibarren etxebizitza alokagai hartuko nuke. 631 291 645

Etxebizitza edo gela hartu nahi dut errentan Elgoibarren edo inguruko herrietan. 688 333 713

Etxebizitza edo ganbara hartuko nituzke alokairuan bizi izateko. Logela bat edo bi. 631 098 995

LOKALAK.....**Alokairua**

Xagua taberna alokatzen da, San Franzisko kalean. 605 741 485

GARAJEAK.....**Salgai**

Garaje itxia salgai, Jausoro plazan. 19.000 €. Autoa eta moto bat sartzen dira bertan. 685 707 879

Garaje itxia salgai Jausoron (Santa Klarara bidean). 696 874 842

BESTELAKOAK.....

1980an jaiotako ena jaiapirilaren 16an. 12:00etan, Tantikan, ongi-etorri luntxa eta bazkaria Sigman. Sartu 42€ 30350007250070067518 zenbakian. Anima zaitetz!



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar

☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Etxebizitza saldu duen jabe batek eskatu al diezaioke komunitateari azken urteetan Erreserba Fondorako egin dituen diru ekarpenak bueltatzea, hasieran dirua obra bazuetarako eskatu bazen eta lanak egin ez badituzte?

Erreserba fondorako egindako ekarpenak komunitateko gai guztietarako dira. Beraz, behin dirua emandakoan jabeak ezin izango du diru hori bueltan jaso.

Erreserba Fondoak ezingo litzateke bueltatu hirugarren batek enbargatuko balu komunitateak zor duen kreditu bat bermatzeko.

Etxe baten jabe aldaketa egiten denean, transmisio horren prezioaren baitan dago komunitatearekin dituen diru kontuetako saldo hartzekoduna. Bestalde, Erreserba Fondoaren osaera eta konfigurazioak galarazten du etxek egotea legeak eskatutako gutxieneko kopuruak betetzen ez badira. Izan ere, Erreserba Fondorako diru-kopurua ezin izango da aurrekontu-ekitaldiko unen batean ere legeak ezarritakoaren gutxienekoa baino txikiagoa izan.

AHOLKUA: Erreserba Fondoak komunitateari lagunduko dio aurre egiten urteko kontabilitatean sortzen diren aparteko gutxieneko gastuei.

ROSALBA PINTADO: Etxaldeko Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Erik!** ostegunean, 5 urte bete dituzulako. Etxekoen eta bereziki Aitanaren partez. Muxu handi bat.



Zorionak, **Jare,** larunbatean 2 urtetxo. Muxu handi bat etxekoen eta bereziki Oihan, Danel eta Izaroren partez.




Zorionak, **Danel!** Ilgandean, urtetxo bat! Patxo handi bat familiakoen partez eta bereziki, Aimarren partez.



Zorionak, **Nora** zure zortzigarren urtebetetzean. Patxo handi bat etxekoen partez. Muak!



Zorionak, **Beñat, Koldo, Alazne eta Ioni!** Aurten gainera bisiesto, zapatuan ospatuko degu bihar dan moduan!!!



Zorionak, **Ixa-peldun!** Bihar 6 urte! Ondo pasa familia guztiaren eta bereziki Agurtzane eta Uxueren partetik.



Zorionak, **Jare,** Astelehenean 4 urtetxo. Oso ondo pasa genuen. Patxoak neba Aratz, lehengusu Ibai eta etxekoen partez.



Zorionak, **Aitor!** Gaur zure lehen urtebetzea. Etxeko guztien partez.

Erretratu bakarreko agurra:

4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€.

Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

GABILONDO Inmobiliaria AUKERA!!

Ermuaranbide kalean pisua saltzeko premia!
5.solairuan, igogailua,
3 logela, sukalde, komuna
eta egongela **943 744 467**



Jarri ezazu zure publizitatea **BARREN** astekarian
edo
www.barren.eus webgunean

☎ **943 741 626**

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

*Eskerrik asko,
gurean izena
eman duzuen
guztiok!*

ikastolan
denok gara



GK GURASO
kontsellua

elgoibar ikastola

www.elgoibarikastola.eus

943 744441



12 BARIXAKUA

18:30-20:30 Odol-ematea. Osasun zentroan.

20:30 Antzerkia: *Herriak*. Txalo produkzioak. Herriko Antzokian.

13 ZAPATUA

11:00 Topaketa. Maitasunez Hezi edoskitze taldea. Kultur Etxeko hitzaldi gela.

12:00 Bilerak, hipotekan zoru klausularen eragina dutenentzat. Rural Kutxa parean.

14 DOMEKA

10:30 Tratu onen aldeko tailerra. Lehen bilera. Mendaroko Gaztelekuak.

12:30 Kontzertua: Udal Musika Banda. Herriko Antzokia.

19:00 Zinegiro goritan. Beldurrezko filmak. *The Descent*. Sutegixa Elgoibarko gaztetxean.

15 ASTELEHENA

Lanbide Heziketa eta Industria mundua ezagutzeko VII. jardunaldiak. Otsailaren 19ra arte. Antolatzaileak: Elgoibarko Udala, Goratu, Manahmana, IMH eta Meka Lanbide Eskola.

17 EGUAZTENA

18:00 Hitzaldia: *Jolas kooperatiboak haurtzaroan. Garapen sozioemotionalen eta biolentziaren prebentzioan duten garrantzia*. Hitzaria: Maite Garaigordobil, EHUko ebaluaketa eta diagnostiko psikologo katedraduna. San Agustin aretoan.

19 BARIXAKUA

21:30 Bideo foruma: *Planes para mañana*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Antolatzailea: Haizea. Kultur Etxeko hitzaldi gela.

22:30 Zinegiro goritan. Beldurrezko filmak. *Dejame entrar*. Sutegixa Elgoibarko gaztetxean.

Nabarmenduak

Talo eguna Lasturren



Domekan, otsailaren 14an, Talo Eguna ospatuko dute Lasturren. Festari hasteko, 11:30ean, Jokin Urriek *Ametzen Liburua* aurkeztuko du. Talogintza tailerra, talo dastaketa, Lasturko errota zaharra martxan ikustea eta beste hainbat ekintzaz gozatzeko aukera izango da. Herri bazkarian parte hartzeko 943 199 033 zenbakian egin behar da erreserba. Bazkalostean, Izer eta Alabier trikilariek joko dute.

Lasturko Talo Egunean masa handitzen dute, eta forma emateko, oihal berezi bat erabiltzen dute taloa xigortzeko eta zapore hobea izateko.




Zinea (Herriko Antzokian)

'Palmeras en la nieve'

13 Zapatua, 19:00-22:15

14 Domeka, 19:00

15 Astelehena, 21:30




'Alvin y las ardillas: fiesta sobre ruedas'

14 Domeka, 16:30



Kepa Acerori buruzko film laburrak

18 Eguena, 21:30



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G
U
A
R
D
I
A
K

09:00 - 22:00

12 Barixakua GARITAONANDIA
 13 Zapatua ETXEBERRIA
 14 Domeka ETXEBERRIA
 15 Astelehena FERNANDEZ
 16 Martitzena YUDEGO
 17 Eguaztena ORUESAGASTI
 18 Eguena BARRENETXEA
 19 Barixakua IBAÑEZ

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara
 ETXEBERRIA (Elgoibar)
 Santa Ana, 1
 Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)
 Fermin Calbeton, 19
 Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
 Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9

(Soraluze) Tel.: 943 751 384

Urtarrilean hildakoak

- | | | |
|--|---|---|
| - Eusebio Cenarruzabeitia
Bengoetxea 87 urte, urtarrilak 4 | - Quintiliano Gutierrez
Gonzalez 77 urte, urtarrilak 11 | - Antonio Berasaluze Bernedo
83 urte, urtarrilak 15 |
| - Francisca Alonso Rodriguez
87 urte, urtarrilak 7 | - Ricardo Conde Conde
84 urte, urtarrilak 12 | - Tomas Astigarraga Lizarralde
86 urte, urtarrilak 19 |
| - Jesus Mari Aizpurua Zabala
65 urte, urtarrilak 9 | - Cipriano Salegi Eizagirre
90 urte, urtarrilak 13 | - Lucio Gomez Sebastian
87 urte, urtarrilak 26 |
| - Pakita Arrillaga Arrillaga
75 urte, urtarrilak 9 | - Dionisia Calleja Ruiperez
96 urte, urtarrilak 14 | - Miren Garbiñe Del Hoyo
Murua 48 urte, urtarrilak 30 |



I. URTEURRENA

M^a Teresa Zubizarreta Artachebarria

2015eko otsailaren 8an hil zen. Haren oroimenez
 I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 13,
 arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
 Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



ETXEBERRIA tanatorioa

Hileta zerbitzua osoa eta 24 ordukoa

KUTXAK, TRASLADOAK ETA KOROAK.
NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI ZUZENDURIKO ZERBITZUAK.
ERIETXE ZENTRUETAN ZERBITZUAK

Santa Klara, 14 - 20870 ELGOIBAR

Telefonoak:

943 741 327 (24 orduz)

Sakelekoak: 635 756 295 / 629 635 203

www.funerariaetxeberria.com



Iñigo Lamelas

Jose Luis Azpillaga



ana dela eta, Deba ibaiaren ondotik gora eta behera ibiltzen zara ia egunero, Eibartik Elgoibarrera edo Debara eta buelta. Trenean edo autobusean zoazela, ibaira begira joatean zara. Maltzagara iritsi eta, lehenengo, ahateak

bistaraten dituzu; pixka bat harantzago, baita ubarroi batzuk ere, ibaiko harri handiren batean pausaturik hegoak zabalik ditzutela. Elgoibarrera helduta, ahate ugari ikusiko duzu, seguru, batzuetan hegaz ere bai, binaka edo hirunaka. Mendaro inguruan ere ibaiari so egingo diozu koartzaren bat ikusteko peskizan. Ez da erraza, geldi-geldi egoten dira-eta. Bai lirainak beren geltotasunean! Eta a zer gozamina, hegaz ikusiz gero! Debara iristean, zisne beltz dotoreak begiztatuko dituzu sarritan.

Elgoibarren geratzen zarenean ere, kaletik beharrean, ibaiaren ondotik joaten zara maiz autobus-geltokitik lanera,

eta bertan ur-oiloren bat edo ahatekumeak ikustean, pausua mantsotu eta liluraz eta jakin-minez geratzen zara begira. Obsesio antzeko bat duzu hezgaiztekin: misteriotsuak zaizkizu, mundu espiritual batekin lotzen zaituztela iruditzen zaizu batzuetan. Zeruan, hegan, atzemanekin ikusten dituzulako ote?

Ilundu du, eta ez da hegaztirik ageri inon. Ikusgarri dago ibai inguru guztia gau epel honetan: ura bare-bare eta ehunka argi piztuta. Zenbat argi dagoen! Distirek hipnotizatutik eta ia itsututa zauzkate. Uretara begiratu duzu, eta, bat-batean, barneko indar batek bultzatuta, jauzi egin duzu zubitik. Eta hor zoaz ibaian behera hegaz! Kink Kong-eko zubi azpitik pasatzean, errukiz begiratu diozu lkaru gizajolari, eta aurrera jarraitu duzu patxadaz hegoei gozo-gozo eraginez eta haize leuna gorputzean sentituz. Maalako zubiaren gainetik igaro eta hegan jarraituko duzu, laster ilargiaren argi soila lagun.

“Ikusgarri dago ibai inguru guztia gau epel honetan: ura bare-bare eta ehunka argi piztuta. Zenbat argi dagoen!”

Gizonezkoen ile-apaindegia

JOSE ANTONIO



Gizonezkoek gero eta gehiago erreparatzen diote beraien itxura fisikoa, bereziki ilea mozteko eta apaintzeko orduan askotariko moduak erabiliz. Horren harira besteak beste bueltan datoz:

- * Kopeta-ilea modu ausartean moztea edo artesia buruko albo batean egitea.
- * Aurreko aldean tupe luzeak egin eta bi aldeak kaskamotz lagatzea.
- * Makina edo guraizeekin marrak markatzea.

Gainera, hipster fenomenoak bizarra berriz modan jarri zuenetik gizonezko askok utzi du bizarra hazten eta gero pertsona sonatuen –aktoreak edo futbolariak– modura moztu edo konpondu.

Gizonezko bakoitzari apropos moztu behar zaizkio bizarra eta ilea aurpegira ondoen ematen dion irudia aukeratuz.

Izan daitezke bizar iletsuak, askorik zaindu gabeak; ile luzedun bizarrak baina txukun moztuak; edo bizar motzak, ondo markatuak.

Ileak mozten diren moduan moztuta ere beharrezkoa da gero etxean bakoitzak zaintzea eta orrazteko produktu bereziak erabiltzea.

- * Efektu lehorreko ilerako argizariak, esaterako, ilea markatzeko edo alderantziz ilea nahasteko balio dute ia produkturik erabili dutenik igarri gabe.
- * Ileari bustia dagoen itxura emateko gelak erabil daitezke.
- * Aparrek eta espraiek ileari bolumena eman eta trinkotzeko ez ezik gogortu eta finkatzeko balio dute.



Gizonezkoen ile-apaindegia

JOSE ANTONIO



Zerbitzu bakoitzean, toaila eta erabili eta botatzeko bizar-xafiak ere sartzen dira, higiearen gaineko araudiak eskatzen duena beteaz.

Errosario kalea, 30 - Elgoibar
Tel: 943 741 492

- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Bizar bukunketak egiten ditugu
- Ilea zaintzeko KERASTASE eta L'OREAL tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako



Kontsultatu hemen ordutegiak: www.peluqueriajoseantonio.com

Gurasook mingainak dantzaz

GURASOENTZAKO TERTULIAK PROGRAMA

INGURU TOLA BATEAN ASEO LAGUNTZE DUT EUSKARAZ HASTEN ARI DIRA!

BEZPENA EMATEK DUT GURUOK EUSKARAZA ERABILTZEK

ZE ZORRA LITZATEKEEN PARRAIA BERRIK EUSKARAZ JARDUTEA

BEZPENA ERABILTZEK DUT

BERGILEKIN EUSKARA ERABILTZEKIN LAGUNTZE HAN DITEMAK

izan zaftez bidelagun

SEMI-ERABILTZEKIN EUSKARAZ BERRIK ERABILTZEKIN ERABILTZEKIN DUT

EUSKARAZ BERRIK ERABILTZEKIN ERABILTZEKIN ERABILTZEKIN DUT

EUSKARAZ ERABILTZEKIN ERABILTZEKIN ERABILTZEKIN DUT

BERGILEKIN ERABILTZEKIN ERABILTZEKIN ERABILTZEKIN DUT

izan zaftez bidelagile

noiz?

goizean



eguerdian



iluntzean



nola?

kafe bar horietan



opiletan egiten



postuetan



INFORMAZIO GEHIAGO: ELGOIBARKO IZARRA EUSKALTZALEON TOPAGUNEA (UBITARTE 4. BEHEA)
TELEFONO ZENBAKIA: 943 741 626 (NAIARA) E-POSTA: ATXUTXIAMAIIKA@ELGOIBARKOIZARRA.EUS

ANTOLATZAILEAK:



BABESLEA:



elgoibar

LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia